**medicusmundiK HAUTATZEN DU:**
gipuzkoa

# PROIEKTU-TEKNIKARIA

## Funtzioak:

- Kontratatutako pertsonak **medicus**mundi gipuzkoaren garapenerako lankidetza-proiektuak identifikatu eta formulatuko ditu, eta haien jarraipenaz, justifikazioaz eta ebaluazioaz arduratuko da, MMGko Proiektu Saileko boluntario-taldearekin eta lantalde teknikoarekin batera.
- Gure kontraparte edo **medicus**mundi gipuzkoaren tokiko antolakunde kideekin etengabeko elkarrizketan egongo da, bai eta proiektuak finantzatzen dituzten erakundeekin ere.
- Aurreikusitako epe eta aurrekontuen arabera espero diren helburu eta emaitzak betetzea gainbegiratuko du.
- Gauzatzen ari diren proiektuen jarraipen tekniko, administratibo eta finantzarioa egingo du.
- Behar denean, proiektuak gauzatzen diren tokietara identifikazio, jarraipen eta ebaluazioko bidaiak egingo ditu.
- Dirulaguntzen kudeaketa tekniko, ekonomiko eta administratiboa egingo du.
- Finantzatzaileak ezarritako prozedurak betetzen direla zainduko du.
- Parte hartuko du **medicus**mundi gipuzkoa dagoen koordinazio-foroetan, garapenerako lankidetza-proiektuen arloan.

## Baldintzak:

- Unibertsitateko eta garapenerako lankidetzaren arloko prestakuntza.
- Gutxienez, 3 urteko esperientzia izatea lankidetza-proiektuak identifikatzen, formulatzen, gauzatzen eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten.
- Genero-ikuspegia ezagutzea eta hura aplikatzen moldatzea.

## Hauek kontuan hartuko dira:

- Euskadiko lankidetza publikoaren funtzionamendua ezagutzea.
- Talde-lanerako gaitasuna.
- Bat etortzea garapenerako lankidetza nahiz **medicus**mundi gipuzkoa gidatzen dituzten printzipioekin.
- Euskaraz eta ingelesez jakitea.

**Lan-baldintzak:**

- ⇨ Lanaldi erdiko lan-kontratua, medicusmundi gipuzkoaren soldata-baremoaren eta baldintzen arabera.

**Interesdunek *curriculum vitae*a modu urgentean bidali behar dute 2019ko OTSAILAREN 5a baino lehen, posta elektronikoz edo arruntez, "Proiektu-teknikaria" erreferentziarekin.**


**gipuzkoa@medicusmundi.es**

**Serapio Mujika pas., 33 - behea (20016 - Donostia)**